

Mendibe

Aurkibidea

Udalerria: Mendibe

Sarrera



Nafarroa Behereko udalerria, Garazi eskualdean kokatua. Behorlegirekin egiten du muga iparraldean eta Lekunberrirekin mendebaldean. Ekialdean, berriz, Zuberoako udalerriak ditu mugakide: Altzai-Altzabeheti-Zunharreta eta Larraine (hego-ekialdean). Argazkian Mendibeko Done Bikendi eliza ([Wikipedia](#)tik hartua).

- **Biztanleak:** 178
- **Euskaldunak:** %60,99

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **14**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **14**

Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

Beñat Urruty (1924)



Beñat Urruty Mendiben sortu zen 1924ko otsailaren 23an eta zortzi haurretan bosgarrena izan zen. 8-11 urte artean ibili zen eskolan. Gero artzaingoan hasi zen, lehenik aitarekin, ondotik mutil, batzuendako eta besteendako. 40 urtetan bere kontu hasi zen artzain eta horrela eraman izan du bere bizia guzia, udan Iratin, neguan bazkak erosiz.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Mutiko baten haurtzaroa Mendiben 1920-1930 hamarkadetan (MDB-001/001)

1930 hamarkadan, familia handiak ziren Benafarroan, gehienetan zazpi edo zortzi haurrekin. Etxalde ttipietan, denetarik egiten zen : kabala batzu, ogi bihia jateko ogia egiteko... Mutiko frango bezala, Beñat-ek ez zuen eskola maite. Guti ibili da. Hamaika urtetan komunionea egin eta eskola utzi zuen. Garai hartan, berrogeitahamar bat haur baziren herriko eskolan. Katixima aldiz ostegunetan zuten, osoki euskaraz.

2. Sos guti haurtzaroan (MDB-001/002)

Sos gutirekin bizi ziren barnekaldeko familiak, batez ere laborariak. Saltzeko zituzten ahatxeak eta axuriak Donibane-Garaziko merkatura eremaiten zituzten zaldi karrosan. Saltzapenak tratuen bidez egiten ziren.

3. Artzain 11 urtetan (MDB-001/003)

Orduko laborari etxe gehienek bezala, Beñat-en aitamek bordalde bat bazuten bi oreko bidean. Beñat han plantatu zen artzain hamaika urtetan. Ardiak zaintzen zituen azaroaren lehenetik urtarrila arte. Urtarrilan, artaldea etxera itzultzen zen erditzeko sasoinarentzat. Martxoan berriz joaten ziren bordaldera hazteko bildotxekin.

4. Bortuko ardi gasna egitea 1930 hamarkadan (MDB-001/004)

Bi hilabetez egiten zen gasna bortuan, maiatzean eta ekainean. Beñat-ek aitarekin ikasi zuen ardi gasna egiten. Esnea garbitzeko asuna eta iratzea baliatzen zuten.

5. Mutil 1940 hamarkadan (MDB-001/005)

Munduko bigarren gerla garaian, Beñat mutil egon da etxalde ezberdinetan : Mendiben, Heletan eta Hazparnen. Negua beherean iragaiten zuen, uda guziz aldiz bortuko bidea hartzen zuen.

6. Artzain Iratin berrogei urtez (MDB-001/006)

Beñat artzain plantatu zen bere kondu 1964an. Uda guziak Iratiko etxolan iragan ditu. Lehen urteetan puska guziak astoekin karreatzen zituen. Hamabost egunetarik, itzuli bat egiten zuen Mendibera eta Donibane-Garazira. Iratin berean, bizpahiru artzain baziren eta elgar ikusten zuten. Aldiz, beste artzain batzu bakarrik eta besteetarik urrun bizi ziren...

7. Harremanak artzainen artean (MDB-001/007)

Mendian, harremanak sortzen ziren inguruko artzainekin . Iratiko zelaia Aezkoatik urrun izanez, Beñat ez da hango artzainekin kurutzatu. Haatik, negu bat egon zen mutil Orbaizetako laborari baten kondu.

8. Bazka sarien tratuak (MDB-001/008)

Betidanik, neguko bazka sarien tratuak ahoz egiten ziren eta egiten dira oraino. Bazkak maiatzaren lehenean ordaintzen ziren (sosez) mendiko bidea hartu aitzin. Beñatek 17 urtez Xiberoan erosi ditu neguko bazkak.

9. Ardien eritasunak (MDB-001/009)

Duela zenbait urte, artaldeak sanoago ziren, eritasun gutiago zen. Haatik urte batez « agalaxia » eritasuna ukan zuten. Ardiek erortzeko mina zuten, flakatzen ziren, batzu hiltzen.

10. Iratiko aldaketak 1960 hamarkadatik goiti (MDB-001/010)

1960 urteetan, artzainak ziren bakarrik bortuko egoiliarak. 1970a inguruan egin zen lehen bidea ; horrekin batera, autoak eta mendiaren erabiltzaile berriak gurutzatu ziren bortu gainean. Azken urte hauetan, zakurrek kezka frango sortzen dute, batez ere ardien artera hurbiltzen direlarik. Ur biltegi bat ere egin zen, bai eta ere bortu gasna saltzeko gune bat antolatu Garaziko sindikataren etxolan.

11. Salbatoreko kapera (MDB-001/011)

Urtean behin egiten zen beila Salbatoren, ekainean, hamabost egun lehenago meza eta prozesioa. Beñat-ek basa jaun eta basa andereen inguruko bi kondaira aipatzen dizkigu.

12. Munduko bigarren gerla Mendiben (MDB-001/012)

Beñat-ek 15 urte zituen munduko bigarren gerla hasi zelarik, Iratin zen mutil. Gerla hastean, Donazaharreraino gune okupatua zen, Mendibe eta Irati aldiz gune askeak ziren baina emeki emeki alemanek eremu guzia okupatu zuten. Bortu gaina ere ongi zaintzen zuten pentsatuz gazteak hortik eskapatzen zirela hego aldera.

13. Kontrabanda 1940 hamarkadan (MDB-001/013)

Munduko bigarren gerla denboran behorak pasatzen ziren Iparraldetik Hego Aldera. Gerlatik landa, alderantziz, handik honara... Guardek Iratiko bortu gainak ere ongi zaintzen zituzten eta artzaineri berriak galdegiten.

14. Mendibeko segeria eta Iratiko oihana (1922-1955) (MDB-001/014)

Italiar familia batek montatu zuen segeria Mendiben 1922an. Egurra iratiko oihanetik tiratzen zuten kableekin. Oihaneko langile gehienak Hego aldetik heldu ziren. Egun guzian oihanean ari izan ondoan, arratsetan Iratiko platoan elgarretaratzen ziren. Igande eguerditan gelditzen ziren, jaten, pausa egiten, jantziak garbitzen, asteko bizarre egiten eta kalakan aritzen artzainekin. Segeria 1955a inguruan gelditu zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com